

Osoko bilkura

Markina-Xemeinen, 2014ko azaroaren 29an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Arkotxa, Aurelia,
Azkarate, Miren,
Iñigo, Andres,
Irazu, Jose, «B. Atxaga»,
Kaltzakorta, Jabier,
Lakarra, Joseba,
Lizundia, Jose Luis,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Mujika, Alfontso,
Osa, Erramun,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaietan.

Jose Luis Lizundia 11:10 direnean sartu da bilera-aretoa, beraz, Osoko bilkura ia amaitzeaz.

Ezin etorriak eta ahalak: Patxi Goenagak ahala Miren Azkarateri; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Patxi Zabaletak ahala Andres Iñigori.

Osoko bilkura Markina-Xemeinen, Lea-Artibaiko Amankomunazgoan hasi da, goizeko 10:00etan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Hasieran, Xabier Abasolo Azkorra Lea Artibai Amankomunazgoko presidente jaunak eta Markina-Xemeingo alkate den Juan Jose Txurruka jaunak euskaltzainak agurtu dituzte, Markina-Xemeinera ongi etorria emanez. Andres Urrutia euskaltzainburuak bere agurra eman eta euskaltzainei egindako harrera ona eta bilerak egiteko aretoak uztea eskertu dizkie.

Ondoren, bilduriko euskaltzain guztiak agurtu eta horiexen zerranda eta heldu

diren ahalak irakurri ditu, eta quoruma badela egiaztatu ondoren, Euskaltzaindiaren azaroko Osoko batzarrari hasiera eman dio.

Idazkariordeak eguneko programa azaldu du, besteak beste ordutegia, bai eta Ageriko bilkuraren nondik norakoa ere.

1. Osoko bilkurako (2014-10-31) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

A. Iñigok bilera-agiriaren laugarren puntuan, I. Caminoren azalpenaren ostean –2. paragrafoaren ondoren, hain zuzen–, ondokoa gehitzeko eskatu du: «Azalpena amaitutakoan, euskaltzainburuak bere izenean, eta erakundearenean ere, zorionak eman dizkio I. Caminori gauzatutako lan ederragatik». Eginiko oharra onartu da.

Gauzak horrela, bestelako oharrak egin ez denez, bilera-agiria onartu da.

2. Hiztegi Batua 2. itzulia, zerrenda osagarriak (famiariaren inguruko saila, izen propioetatik eratorriak eta –(t)ar osarakoak) aurkeztu.

A. Sagarnak egin du lanaren aurkezpen orokorra eta ondoren hitza Miriam Urkiari, Hiztegi Batuko lantaldeko buruari, eman dio, ekarriko zerrendak xehekiago azal ditzan. M. Urkiak, lau gai aurkeztu ditu paperean idatzirik, banan-banan azaldu dituenak. Hasteko, aztergaiaren egitura hobeki ulertzeko azalpenak eman ditu, amaieran oharrak egiteko bidea ere argituz; hots, ohargilea nor den, aztergai konkretuaren zerrenda osagarria zein den, oharrez hornitu nahi den aztergaiko forma, ohargilearen proposamen zehatza eta, azkenik, proposamen horretarako arrazoiak aipatzeko, fitxa bat eskainiz.

Hurrengo zerrendan familiako kideen izenak aurkeztu ditu, bai forma literarioak eta bai era dialektal eta hain ezagunak ez direnak ere. Hiztegi Batuko 2. itzuliaren arduradunek hor, beren ustez, berba horiek onartu edota gaitzesteko arrazoiak ere eskaintzen dituzte. Senide-maila eta lotura-kidetasun ezberdinak sartu dira. Hor inguruko hizkuntzetan sexismoz egiten diren bereizketekin kontuz ibili beharra dagoela azaldu du, hori ez baita euskaraz beti zilegi izaten. A. Urrutiak eta A. Sagarnak ere euskararen berezitasun horretaz ohartzeko esan dute, erdarekiko mimetismoan ibili gabe. Tx. Peillenek *esposatu* / *ezkondu* hitzekin Zuberoan behintzat kontzeptu ezberdinak bereizten direla gogorarazi du. Bide berean, X. Kintanak gaineratu du, Zuberoako erabilera horri heldurik, G. Arestik gauza bera egiten zuela bere idazkietan.

Beste zerrenda batean pertsona- edo leku-izenetatik modu ezberdinez helduriko hitzak aurkeztu dira, sortu eta sartu berriak gehienak, eta onartzeko irizpideak ere aipatzen dira, partaideen ustez onartzeko edo gaitzesteko irizpideekin.

Azken zerrendan izen propioetatik *-(t)ar* atzizkiaz eratorririko izen zerrenda aurkeztu eta horien kasuistika ere azaldu du M. Urkiak.

M. Azkaratek, garai batean Euskaltzaindian azterturiko hitz batzuez gogoratuz (*galbanizatu*, *galbanometro...*), horiez egin zen oharra eta hartarako prestatu ziren txostenak, ahal izanez gero, eskuratu nahiko lituzkeela esan du. Baietz erantzun zaio, eta txosten horiek helaraziko zaizkiola. Bestetik, M. Azkaratek galdetu du ea zergatik orain ez den biltzen, lehenago egiten zen bezala, sasoi bateko batzorde ahaldundua, gaiak landu eta zerrendak hezurmamitzeko.

Euskaltzainburuak erantzun dio 2013. urtean eginiko Barne Jardunaldian batzorde ahaldundu bakarra antolatzea erabaki zela, hain zuzen ere, «Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak» egitasmoari dagokiona. Izan ere, hala erabaki zen Hiztegi Batuaren 2. itzulia bukatua zelako eta geratzen ziren zerrenda bereziak Hiztegi Batuko lantaldeak landutakoak zirelako. Horiek dira, izan ere, orain ekarri direnak Osoko bilkurara, Hiztegi Batuko lantaldeak aldeztu aurretik landuta daudelako eta Zuzendaritzak egoki ikusi duelako zerrenda berezitu horiek horretara aztertzea eta onartzea, Osoko bilkurak baitu horretan erabakimena. Horrek ez du esan nahi, eta Zuzendaritzak hala proposatuko du 2015. urteko udaberrian egingo diren Barne Jardunaldietan, Hiztegi Batuari buruz eratuko ez denik batzorde ahaldundu bat, Hiztegi Batuaren premiak (3. itzulia eta abar) aztertu ondoren. Nolanahi ere, Osoko bilkurak onartu beharko du hori.

Miren Azkaratek esan du lehenago lana era antolatuagoan egiten zela eta oraingo prozedurarekin bera behintzat engainaturik eta bazterturik sentitzen dela, eta bere desadostasuna bilera-agirian jasotzeko eskatu du. A. Sagarnak oraingo batzordearen funtzionamendua azaldu du. Horiek horrela, ez du uste aurrekoak baino txartoago lan egiten duenik. Bestalde, orain lehenago bezalako batzarrak berriro egiten hasteak, bere ustez, atzerakizuna lekarke.

B. Oihartzabalek esan du lehenagoko prozedura, bere akatsekin ere, serioagoa zela, eta lehenagoko bidera itzultzea nahi luke. Era berean, azaldu du zertarako sortu ziren batzorde ahaldunduak, eta ez dakusa egoki aldateta. M. Azkaratek oraingo prozedurarekin urrats bat kendu dela uste du: Hiztegi Batuko batzorde ahaldundua. Patxi Uribarrenek, hitza eskaturik, batzorde hori aldi baterako sortu zela gogorarazi du, baina gero praktikan ikusi zela denbora luzea behar izaten zuela, eta horrexegatik pentsatu zela, egokiagoa zela oraingo modura aldatzea.

Euskaltzainburuak gogoratu ditu, alde batetik, Miren Azkarateren iritzia berea dela eta Osoko bilkuraren kide guztiek eskubidea dutela euren oharrak egiteko

lehen, orain eta gero ere, horixe baita Euskaltzaindiaren legea. Beraz, Miren Azkaratek eskubidea du, beste euskaltzain guztiek duten eskubide berbera, bere oharrak egiteko eta ez dago inongo bazterketarik. B. Oihartzabali gogoratu dio euskaltzainburuaren proposamenez (izena barne) eratu zirela batzorde ahaldunduak, lanak azkartzeko asmoz, beti ere, epe eta zeregin jakin baterako. Badirudi orain zalantzan jartzen dela Hiztegi Batuko lantaldearen lana edota orain egiten dela aldaketa. Ez da horrela eta aurreko Barne Jardunaldietan hala erabaki zela gogoratzen du. Nolanahi ere, berriro adierazi du datozen Barne Jardunaldietan Hiztegi Batuari buruzko gaia, ohi bezalaxe, berriz aztertuko dela eta Zuzendaritzak gaiari buruzko proposamena egingo duela. M. Azkaratek ez du inola ere zalantzan jartzen Hiztegi Batuko lantaldeak prestalana ongi egin duela Hiztegi Batuaren hasiera-hasieratik gaur arte.

Gaur aurkezturiko txostenari dagokionez: batetik, familiei buruzko zerrendarekin loturiko familia-mapak, bai eta aurkezturiko zerrendetako hitzen txostenak ere euskaltzainei eskuratuko zaizkiela adierazi da. Euskarri elektronikoan bideratuko da informazio osagarri hori idazkariordearen bidez; bestetik, gaur aurkezturiko zerrendak luzeak izanik, iruzkinak-eta egiteko epea datorren urteko urtarrilaren 15ean amaitzea erabaki da.

3. Euskaltzaindiaren 2015. urteko egutegia. Jasoriko iruzkinak eta oharrak aztertu eta erabaki, hala badagokio.

Osoko eta ageriko bilkurei dagokienez, ez da oharririk iritsi. Beraz, 2015. urteko Euskaltzaindiaren egutegia honela zehaztu da:

Urtarrila	30	Osoko bilkura	Bilbo
		Ageriko bilkura: hilberri txostenak	Bilbo
Otsaila	27	Osoko bilkura	Gasteiz
Martxoa	27	Osoko bilkura	Azkoitia
		Ageriko bilkura: EAE / RSBAP, 250. urteurrena	
Apirila	23	XIX. Barne Jardunaldia	Bilbo
	24	Osoko bilkura	Bilbo
Maiatza	29	Osoko bilkura	Donostia
Ekaina	26	Osoko bilkura	Baiona
		Ageriko bilkura, Eugène Goihenetxeren jaiotzaren mendeurrena	

Iraila	25	Osoko bilkura – Nafarroa Oinez 2015 antolatzen duen Baztango Ikastolari bisita Ageriko bilkura, Mariano Izeta ohorezko euskaltzainaren jaiotzaren mendeurrena	Elizondo
Urria	30	Osoko bilkura Ageriko bilkura, Koldo Mitxelenaen jaiotzaren mendeurrena	Donostia
Azaroa	27	Osoko bilkura	Bilbo
Abendua	18	Osoko bilkura	Bilbo

M. L. Oñederrak Ahoskera batzordea, urriaren 23an, Donostian, Luis Villasanten Euskararen Ikergunean, *Ahoskera jardunaldia* antolatzeko prest dagoela adierazi du. Lauzpabost txosten aurkeztu eta eztabaidatuko lirateke. Ondo ikusi da proposamena oro har. Batzordearen urteko planean aurreikusi eta urteko aurrekontuak aztertzean, bideragarri den begiratu beharko da.

A. Toledok, Literatura Ikerketa batzordeak Jose Manuel Etxeita idazlearen heriotzaren eta Piarres Lartzabal euskaltzain osoaren jaiotzaren mendeurrenak kontuan hartuz, Bizkaian eta Ipar Euskal Herrian jardunaldiak egitea aurreikusi dutela adierazi du. Lehenbizikoari dagokionez, Eusebio Maria Azkue dela-eta Lekeition antolaturiko jardunaldiaren antzekoa Mundakan egitea begiz jo dute. Bigarrenaren kasuan, antzerkigintzaren inguruan antolatuko litzateke jardunaldia. Azken hau paratu aurretik, Ipar Euskal Herriko euskaltzain eta idazleekin hitz egingo dute. Zuzendaritzak bi proposamen hauek ondo ikusten ditu. Edozelan ere, aurrekontuetan aurreikustea komeni da halako kontuek zein diru-zama suposatzen duten jakin eta bideragarri diren aztertzeko.

4. Exonomastika: *Ekialdeko Antzinateko herriak aurkeztu.*

Bilera-aretoan A. Mujika Exonomastika batzordeko idazkaria sartu da, gaurko gaiko txostena aurkeztera. Proposamena hamaika orrialdeko txosten batean ekarri du, euskaltzainen artean banatua. Sarreran *Ekialdeko Antzinateko herriak* izendatzeko, oro har, dinastiak eta gizataldeak izendatzeko erabili ziren irizpide berberak mantendu dira, ahal den guztian tradizioan edota gaurko erabilera nagusian oinarrituz. Ondoren, kasu nabarmenenak azaldu ditu.

Oharrak aurkezteko epea, 2015eko urtarrilaren 15ean finkatu da.

5. Esku artekoak.

5.1. Espainiako Itsuen Erakundearen eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaz hitzarmena. Bi erakundeon artean lankidetzaz hitzarmena izenpetu da azaroaren 10ean. Lankidetzaz hitzarmen honen arabera, Euskaltzaindia eta ONCE elkarlanean arituko dira Euskaltzaindiko katalogoetako obrak, hots, bi aldeek batera hautatutakoak, Braille sistemara eta/edo itsuek soilik erabiliko dituzten beste formatu batzuetara egokitzeko.

5.2. Gipuzkoako Foru Aldundiak eraturiko Euskararen Foroa. Euskaltzaindiko Zuzendaritzak Andoni Sagarna euskaltzain osoa eta Gipuzkoako ordezkaria proposatzea erabaki du, 2014ko azaroaren 25ean eginiko bilkuran. Proposamena onartu da Osoko bilkuran.

5.3. Eusko Ikaskuntzako Manuel Lekuona Sariko epaimahaian Euskaltzaindiko ordezkaria. Euskaltzaindiko Zuzendaritzak Xabier Kintana euskaltzain osoa eta Euskaltzaindiko idazkaria proposatzea erabaki du, 2014ko azaroaren 25ean eginiko bilkuran. Proposamena onartu da Osoko bilkuran.

5.4. Gaur banatuko diren liburuak. Gaur hiru liburu eskuratuko zaizkie euskaltzainei:

- Onomastika batzordearen laguntzarekin, Andres Iñigo euskaltzain osoak eta Patxi Galé euskaltzain urgazleak paraturiko *Euskal Herriko ibaiak* (Izenak bilduma 4). Hiru eletan argitaratua eta iraileko Osoko bilkuran eginiko azken zuzenketak ere jasotzen dituena. Liburu hau Bizkaiko Foru Aldundiak emaniko diru-laguntzari esker argitaratu da. Euskaltzaindiko webguneko bertsioa ere berri du.
- Juan Madariagak paraturiko *Sociedad y lengua vasca en los siglos XVII y XVIII*, Etxeberri bilduma (EHS). Liburu hau azaroaren 14an, Donostian eginiko XIX. Jagon Jardunaldiaren egitarauaren barruan, aurkeztu zen. Liburu hau Olaso Dorrea Sorrerakundeak emaniko diru-laguntzari esker argitaratu da.
- Paula Kasares euskaltzain urgazleak paraturiko *Euskaldun hazi Nafarroan*, Jagon bilduma 16. Liburu hau Bizkaiko Foru Aldundiak emaniko diru-laguntzari esker argitaratu da.

5.5. Hurrengo bilkurak. Xehetasunak eman dira. Honako hauek:

- Abenduaren 19an, ostirala, goizeko 10:00etan, Osoko bilkura egingo da Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean.

– Abenduaren 19an, ostirala, eguerdiko 12:30ean, Joan Martí i Castells ohorezko euskaltzainari ikurra eta diploma emateko, Ageriko bilkura egingo da Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean.

6. Azken ordukoak.

Ez da gairik izan.

Eta besterik ez dela, 12:00etan Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Markina-Xemeinen, 2014ko azaroaren 29an

Jabier Kaltzakorta euskaltzain osoaren sarrera-hitzaldia egiteko, Ageriko bilkura

Markina-Xemeingo Udaletxean, eguerdiko 12:30ean, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du, Jose Luis Lizundia euskaltzain osoa emeritu mailara igarotzearen ondorioz, 2013ko uztailaren 19ko Osoko bilkuran euskaltzain oso izendatu zen Jabier Kaltzakortaren sarrera-hitzaldia egin eta dagozkion diploma eta Akademiaren ikurra emateko.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xabier Kintana idazkaria, Sagrario Aleman diruzaina, Adolfo Arejita Iker sailburua, Jean-Baptiste «Battittu» Coyos Jagon sailburua, Aurelia Arkotxa, Miren Azkarate, Andres Iñigo, Jose Irazu «Bernardo Atxaga», Jabier Kaltzakorta, Joseba Lakarra, Jose Luis Lizundia, Beñat Oihartzabal, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Andoni Sagarna, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdai, Patxi Uribarren eta Mikel Zalbide.

Euskaltzain ohorezkoak: Paulo Agirrebaltzategi, Luis Baraiazarra, Antonio Campos, Maite Idirin, Jose Mari Iriondo, Ander Manterola eta Manuel Maria Ruiz Urrestarazu.

Euskaltzain urgazleak: Kepa Altonaga, Xabier Altzibar, Antton Aranburu, Pello Esnal, Igone Etxebarria, Juan Manuel Etxebarria, Jesus Mari Etxezarreta, Patxi Galé, Pruden Gartzia, Sebas Gartzia, Juan Luis Goikoetxea, Jacinto Iturbe, Jose Mari Iturralde, Patxi Juaristi, Miren Agur Meabe eta Rosa Miren Pagola.

Erramun Osa euskaltzain urgazlea eta idazkariordea eta Joseba Zabaleta kudeatzailea.

Asier Bidart Euskaltzaindiko Onomastika batzordeko kidea.

Lea-Artibai Amankomunazgoko eta Lea-Artibaiko herrietako alkateak eta udal-ordezkariek: Juan Jose Txurruka, Josune Baskaran, Joseba Iraolagoitia, Gorka Fundazuri, Aitor Odiaga, Iñigo Ansola, Alex Aretxabaleta, Sara Gerenabarrena, Patrizia Lazaro, Rakel Alberdi, Xabier Abasolo, Miren Argia Ituarte, Rikardo Beitia, Jon Ander Barrueta, Itziar Hirusta, Jose Luis Azpiazu, Jesus Iriondo eta Jesus Le-kerikabeaskoa.

Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea, Ana Castro Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendari nagusia, Lorea Bilbao EAJko Euzkadi Buru Batzarreko kidea.

Unibertsitateetako, elkarteetako, erakundeetako eta hedabideetako ordezkariek: Jose Maria Guibert (Deustuko Unibertsitatea, errektorea), Roberto San Salvador (Deustuko Unibertsitatea, errektoreordea), Jon Zarate (EHU, errektoreordea), Rosa Miren Pagola (Eusko Ikaskuntza, presidenteordea), Bingen Zupiria (*Deia* egunkaria, zuzendaria), Jon Etxabe (UZEL, presidentea), Juan Maria Atutxa (Sabino Arana Fundazioa, presidentea), Nerea Mujika (Gerediaga, presidentea), Julian Serrano, Harbil Etxaniz eta Xabier Unanue (RSBAP / EAE, ordezkariek).

Euskaltzaindiko langileak: Lutxi Alberdi eta Amaia Okariz.

Alkate Soinuak eman dio hasiera ekitaldiari. Jarraian, Xabier Kintana Euskaltzaindiko idazkariak ongi etorria eman die hurreratu diren guztiei, bai eta ekitaldiaren nondik norakoa azaldu ere. Era berean, Euskaltzaindiko Barne-erregelak sarre-hitzaldiaz diotena irakurri du. Idazkariaren hitzen ostean, Juan Jose Txurruka Markina-Xemeingo alkateak halako ekitaldi bat Markina-Xemeinen egiteagatik poza agertu eta zorionak eman dizkio Jabier Kaltzakortari.

Andres Urrutia euskaltzainburuak agur laburra egin du, besteak beste ekitaldiaren garrantzia azpimarratuz. Ondoren, Patxi Uribarren, Jabier Kaltzakorta hautagaitzat aurkeztu zuenetariko bat, eta azken sarrera-hitzaldia egin duen Jean-Baptiste «Battittu» Coyos euskaltzain osoa deitu eta euskaltzain berriaren bila joan daitezten eskatu die.

Bi euskaltzainek lagunduta batzar aretora sartu da Jabier Kaltzakorta *Ahozko literatura hizpide* izenburuko sarrera-hitzaldia irakurtzeko. Erantzuna Adolfo Arejita euskaltzainak eman dio.

Wilhelm Humboldt-ek Euskal Herrira egindako bigarren bidaiako ibilbidea gida harturik, lekuan lekuko ahozko generoak aztertu ditu Kaltzakortak bere hitzaldian. Humboldt Euskal Herrira bigarrenez etorri zenean, 1801eko udaberrian, Baionatik

Donibane Lohizunera eta handik Donostiara jo zuen eta Donostiatik, Getarian zehar, Ondarroara sartu zen. 1801eko maiatzaren 4tik 5era, Markinan, Juan Antonio Mogelek egon zen. Humboldt Markinan egon zenean, J. A. Mogelek *Loreen kantua* izenarekin ezagutzen den euskarazko kanta baten berri eman zion. Kanta hori, Mogelek Humboldti aditzera eman zionez, kantabriarrek –hots, euskaldunek– Augustoren legioen kontra borrokatu ziren garaikoa omen zen.

1817an, liburuxka batean (*Berichtigungen und Zusätze des Mithridates* erdaraz *Correcciones y Adiciones al Mithridates de Adelung*) ohar eta iruzkinekin, argitaratu zuen Humboldt. Kantu horrek eragin handia izan zuen Europan zein Euskal Herrian bertan. Markinan J. Antonio Mogelek eta Durangon Pablo Astarloarekin egon zen Humboldt. Bidaiari prusiarraren bidaiaren egunerokoa gida harturik, mugaz bestaldeko ahozko generoak aipatu ditu Kaltzakortak bere hitzaldian.

Mugaz bestaldean, Lapurdin, Baionan zehar Itsasura joan zen Humboldt. Itsasun, Harambillet apaiz zaharra ezagutu zuen eta horrek euskarazko kanta zaharrak erakutsi zizkion. Hala bada, Itsasun ikasitako kanta eta baladen gainean hitz egin du J. Kaltzakortak hitzaldian. Itsasutik Baigorri zeharkaturik, Zuberoa izan zen Humboldt ezagutu zuen azken euskal lurraldea.

Jabier Kaltzakortak emaniko sarrera-hitzaldiari erantzuna Adolfo Arejita Iker sailburuak eman dio. Bere erantzunean, J. Kaltzakortari buruz hitz egin du Arejitak: «Nahiago dut bere bibliografiari so bat egin eta hartako ale bakoitzaren edukiaren trinkotasunari eta sakonerari neurria hartzea, kopuru neurriaz gainera».

Jabier Kaltzakortaren ibilbidea eta lana gogoan izan ditu, beraz: «Beronen liburuetan, baina batez ere aldizkarietan barrena argitaratu dituen ikerlanak ohartsu irakurritz gero, eta berari astiorduetan honez edo hartaz hitz egiten entzuteko betarik izan baduzue, gutariko edozein harrituko da, euskal hizkuntza-literaturez ez ezik, literatura unibertsalaz zein kultura zabalaz beronek duen jakinduria zabalaz. Ezaguera entziklopediko moduko osotasun horretatik literaturaren eta bereziki herri literaturaren barrutia hautatu zuen orain dela aspaldi bere baratz preziatu, eta hori landu du gehienik, baina beste alderdiak ere ahantzi gabe».

Hitzaldiak amaitu ostean, eta euskaltzain berriak, Euskaltzaindiaren xede eta helburuei eta euskaltzain izateari dagozkien eginkizunak zintzo eta leialki beteko dituela hitza eman ondoren, Andres Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain osoen domina jantzi eta diploma eman dio Jabier Kaltzakortari.

Ekitaldi akademikoa amaitutzat emanez, opari eta oroigarrien unea heldu da. Hala, Juan Jose Txurruka alkateak, Udalaren izenean, eta Ander Manterola oho-

rezko euskaltzainak eta Igone Etxebarria euskaltzain urgazleak, Labayru Ikastegia-
ren izenean, opari bana eman diote.

Ostean, hurreratu diren guztiei aho-gozagarri arina eskaini die Udalak, ekital-
diari amaiera emanez, 14:00etan.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria